



EBAZPENA, FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, larrialdi-egoeraren aurreko kontingentzia-planari buruzkoa (COVID-19) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako enplegatu publikoen zerbitzuak emateari buruzkoa.

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemia bihurtu zuen COVID-19k eragindako osasun publikoko larrialdi-egoera. Gertaeren eboluzioaren azkartasunak, nazioan eta nazioartean, berehalako neurri eraginkorrak hartzea eskatzen du, egoera horri aurre egiteko. Testuinguru horretan, Osasun sailburuak 2020ko martxoaren 13ko eta 14ko Aginduak onartu ditu, koronabirusaren egoeraren eta bilakaeraren ondorioz osasun publikoko neurriak barne hartzen dituztenak (Covid-19). Horietako lehena oinarri hartuta, 2020ko martxoaren 13ko Aginduaren bidez, Segurtasuneko sailburuak formalki aktibatu du Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea (LABI) Euskadiko Babes Zibileko Plana, Covid-19ren hedapenak sortutako alerta epidemiologikoko egoerari aurre egiteko.

Bestalde, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, Espainiako Gobernuak alarma-egoera deklaratu du, eta ezohiko neurriak hartu ditu COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko.

Azken egunotan, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren gomendioei eta proposamenei jarraituz, Funtzio Publikoko Sailburuordetzak hainbat zirkular eman ditu zerbitzu publikoaren mantentzea eta osasun-agintariak birusa ez zabaltzeko emandako gomendioak ahalik eta gehien errespetatzeko.

2020ko martxoaren 17an, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariak honako hau jakinarazi zuen:

"Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza honek Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari helarazi nahi dio ekidin daitekeen edozein kutsadura-foku ahalik eta gehien mugatzeko osasun-gomendia, eta sail bakoitzari, aurrez aurre, bere zeregina betetzeko behar-beharrezkoa den langileak bakarrik eman diezazkion, bidaiak eta kontaktuak eta Covid-19 hedatzeko beharrezkoa ez den hurbiltasun fisikoa eta kaltegarria saihestuz.

Era berean, osasun-gomendio hori bihartik, 2020ko martxoaren 18tik, aplikatzea eta eraginkorra izatea eskatu behar dugu ...".

Ondorioz, Funtzio Publikoko Sailburuordetza honek honako hau ebatzi du:

1. artikulua. Enplegatu publikoek egin beharreko jarduera eta funtsezko eginkizunak edo eginkizun kritikoak dituzten langileen egoera.

1. Akordio honen ondorioetarako, funtsezko eginkizunak edo funtzio kritikoak dituzten langiletzat hartzen dira kargu publikodunak, bai eta Autonomia Erkidegoko Administrazioaren funtzionamendu zuzenerako funtsezkotzat jotzen diren funtzioekin lotutakoak ere, hala nola eraikinen segurtasuna eta mantentze-lanak, komunikazioak, kabineteen eta zerbitzu kritikoek erabiltzaileei arreta emateko teknologia-zerbitzuak eta, oro har, jarraitutasuna bermatzeko beharrezkoak diren guztiak. Oinarritzako funtzioak Jaurlearitzako sailtako zerbitzu-zuzendaritzek eta erakunde autonomoetako zuzendaritza-organoek erabakiko dute, dagozkien zuzendaritza-organoek proposatuta, zer eginkizun eta/edo lanpostu giltzarri edo kritiko izango diren ebazpen honen ondorioetarako.

2. Eginkizun kritikoak dituzten langileek lantokira joan beharko dute, baldin eta beren jarduera presentziala ezinbestekoa eta beharrezkoa bada atxikita dauden sailari legez esleitutako eginkizunak betetzeko, eta zuzendaritza-organoetako titularrek hala erabakitzen badute. Eginkizun kritikoak dituzten langileek, beren sailari legez esleitutako eginkizunak betetzeko behar-beharrezkoa eta ezinbestekoa ez denean, aurrez aurrekoa ez den lan-modalitatean egin ahal izango dituzte beren eginkizunak, betiere modalitate hori posible bada eta eginkizun horiek betetzea inolako murrizketarik gabe ziurtatzeko aukera ematen badu. Horretarako, ahal den neurrian, telelanaren modalitatea emango da.

3. Aurrez aurreko modalitatean ezarritako zerbitzu kritikoak garatu behar dituzten pertsonentzat, osasunaren segurtasuna behar bezala bermatzeko neurri egokiak hartuko dira.

4. Funtsezko eginkizunak edo eginkizun kritikoak betetzen ez dituzten enplegatu publikoek beren etxean jarraitu ahal izango dute Sailaren edo Erakunde Autonomoaren bulegoetara joan gabe, eta lan ez-presentzialaren modalitatean lan egingo dute, kasuan kasuko zuzendaritza-zentroek zehaztutako bitartekoen eta irizpideen arabera.

5. Ebazpen hau indarrean jartzen den egunean telelanaren modalitatean zerbitzuak ematen ari diren langileek aurrez aurrekoa ez den lanaldian jarraituko dute, dagokion zuzendaritza-organoak kontrakoa ebatzi arte.

6. Eginkizun kritikoak dituzten langileek, beren lantokietara joan behar badute, administrazio-bulegoetara sartzeko eskatuko diete arduradunei, beharrezkoa denean. Era berean, kasu horietan ordutegi-malgutasuna eta

txandakako lana sustatuko dira, zuzendaritza-zentroetan indarrean dagoen araudiaren arabera, pertsonen arteko urruntzea errazteko, bai eta higiene pertsonalari, bidaietarako debekuari eta aurrez aurreko bilerak egiteari buruzko gainerako neurriak ere.

2. artikulua. Prestutasuna.

Lan-ordutegian, enplegatu publiko guztiek beren posta elektronikoari erantzun beharko diote, eta prest egon beharko dute beren zuzendaritza-zentroak une bakoitzean ematen dituen jarduera-jarraibideak jasotzeko. Urrutiko lana egiten duten langile guztiek arreta berezia jarriko dute zibersegurtasunari buruzko gomendioetan, eta gomendio horiek ohiko bideetatik jakinaraziko zaizkie enplegatu publikoei.


Xedapen gehigarria.

Osasun eta Segurtasun Sailek, bakoitzak bere eskumenak baliatuz, ebazpen hau behar bezala aplikatzeko behar diren neurri guztiak zehaztu ahal izango dituzte, osasun-larrialdiko egoeraren esparruan.

Azken xedapena.

Ebazpen honek sinatzen den egunean izango ditu ondorioak, eta indarrean jarraituko du osasun-larrialdiko egoera amaitu arte.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 17a


Funtzio Publikoko sailburordea
Andres Zearreta Otazua



GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA
DPTO. DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

